Etxaldeetan…

Errapetako minen hartatzea :

hiru laborarien lekukotasuna

Jon Harlouchet, esnetako behi biologiko hazlea, Duzunaritze

Errapetako minak problematika haundia izan ohi da behi esnadun tropetan. Zure etxaldean ere hala dea ?

Gure behi tropan biziki errapetako min guti izaiten ditugu. Hainbat faktoren ekidin diezoke errapetako minei. Lehenik eta behin barrukiari loturiko arazoak, behiek aski leku behar izanten dute, eta jaurgiak idorra eta garbia izan behar du…

Ondotik bazkatze moldeak datoz. Hor zuzenean eragiten dute Obsalim metodoan aipatzen diren gai ezberdinak :bazkaren oreka, bazkatze moldeak (belar idor apairu bat zaldera eman aitzin), triparen pHaren aldaketak saihestu…

Azkenik, egia da ere gure behiek ez dutela esne produkzio oso haundia (5 000L/behika guti gora behera). Geroz eta gehiago produzitu nahi denean, bazkaren aldetik ere geihago pusatuko ditugu, eta horrek behia ahuldu dezake, ateak idekiz eritasun ezberdin ainitzi, hauetan errapetako minei.

Noiztik ez duzu gehiago antibiotikik baliatzen errapetako minak sendatzeko ?

Badu orain hogeita hamar bat urte ez dugula holako sendagaiik baliatzen mamiten sendatzeko. Garai hartan, ene aita, Lemaire-Boucher methodoaz interesatu, eta arrakasta haundiz, magnesio kloruroa balatzen hasi zen errapetako minen sendatzeko orduan.

Magnesio kloruroak, globulo zuriak indartuz, kabalearen sistema imunitarioa azkartzen du, infekzioa mugatuz.

Azken 2-3 urte hauetan, olio zentzialak ere baliatzen ditu, hunkia den errapeari masajeak emanez.

Sendatze protokoloa gehiago zehaz dezakezu ?

Lehen sintomak agertu bezain laster, 150 magnesio kloruro ur litro batean hurtua, edanarazten diet goiz eta arrats, 3-4 egunez. Nahasketa hori oso minkotsa da, eta behiari ez zaio kontrako zintzurrekin sartu behar, beraz ez da komeni litro osoa batean ematea.

Normala izaiten da tratamendua hasi eta lehen egunetan esnearen zelula heina gora joaitea. Dena den mail hori egun gutitan berriz ere apaltzen da. Praktikoki, komeni da berinazko boteilen baliatzea, eta hauetan egokiena, txanpanezko boteilak dira (borobilak, azkarrak).

Olio ezentzial nahasketa bat ere baliatzen dut hunkia den errapean masaje bidez emaiten dutana. Ondoko 7 olio zentzialak baliatzen ditut : COGA, tea tree, palmarosa, eucalyptus citronné, laurier, menthe poivrée, cyprès (bakoitzetik 2ml, 14 ml guzira) 86ml eguzki lore olio bidez diluitzen ditut.

Protokolo honen alde txar bakarra, magnesio kloruroaren emaiteko manipulazio ainitz behar dela da.

Donaixtiko Mikel Negueloua-ren lekukotasuna, ardi esnadun eta haragitako behi biologikoak.

Noiztik baliatzen dituk olio ezentzialak errapetako minen hartatzeko ?

Iragan urtean hasi ginen errapetako minak molde hortan tratatzen, jakin behar da olio ezentzialez aparte, « chlorure de magnésium »-a ere baliatzen dugula.

Zehazten ahal dauguk protokolo hori ?

Olio ezentzialak ahotik eta masaia bidez emaiten ditugu. Denentzat olio ezentzial berak dira, kantitate berean :COGA, Tea tree, cyprès, eucalyptus citronné, menthe poivrée, palmarosa, lavandin eta laurier.

Ahoz emaiteko olio ezentzial horiek %10 diluitzen diegu oliba olioarekin. Orotara nahasketa hortarik 10ml emaiten dugu (1ml olio ezentzial) egunean hiru aldiz. Lehen 3-4 egunetan eta ondotik, egunean bi aldiz.

Egunean bi aldiz, errapeari masaia bat enaiten diogu oilio ezentzial (%10) eta garbitzeko esneaz egin nahasketaz.

Azkenik egunean behin, 10 grama chlorure de magnésium ere emaiten dugu. Chlorura sonda bidez eman behar da, kontra-xilo joanez gero, ardia seko hiltzen baita.

Zoin dituk protokolo horren emaitzak ?

Iragan urtean izan genituen errapetako minak biziki ontsa sendatu ziren. Emaitza harritzekoa da. Haatik aurten izan ditugun kasuak azkarragoak izan dira. Gainera aurten debora dutiago ginuenez tratamenduaren epea aste batetik lau egunera laburtu dugu, eta beraz tratamendua ez da hain eraginkorra izan. Ene ustez errapearen ontsa sendatzeko beharrezkoa da aste bateko epearen errespetatzea.

Antton Etcheber, ardi hazle konbentzionala, Pagola.

Noiztik hasi zira magnesio kloruroaren baliatzen errapetako minen sendatzeko ?

2010eko apirilan agalakzia ukan genuean , eta orduko entzuna nuen Frantxoa Irigoyenek magnesio kloruroaren bidez gainditu zuela eritasun hori. 2010ean, magnesioa, prebentzio gisara baliatzen nuen (5gr/egunean aste batez hilabetean behin), baina errapetako minetan antibiotikak baliatzen nituen. 2011an, BLEk, magnesio kloruroaren erabilera errapetako minetan zehazten duten fitxa teknikoa egertu ondotik, hasi nitzen kasu klinikoetan baliatzen

Nola haratzen dituzu orain errapetako min horiek ?

Sei koilara haundi magnesio kloruro hurtarazten ditu litra bat eta erdi urean. Nahasketa hontatik, 180ml emaiten diet egunean behin hiru eguez (egunean bi aldiz kasu larrienetan). Epe hori pasa eta, esnea berriz ere normala bilakatzen da agalakziaren ondorioz sortu errapetako minetan.

Zein dira tratamentu honen alde on eta txarrak ?

Metodo honek duen zailtasun bakarra, magnesio kloruroa sonda bidez eman behar dela da, eta horrek manipulazio gehiago galdegiten du batez ere kasu ainitz dituzunean. Nere deizeko sala egina den bezala, han berean emaiteko parada emaiten dit eta horrek gauzak errexten dizkit.

Emaitzen aldetik, erran dezaket metodo hau antibiotikak bezain eraginkorra dela, gainera merkeagoa, eta deizteko unean lasaiago ibiltzen naiz. Ez dut beldurrik, xori-burukeri baten ondorioz, esnea antibiotikez kutxatua izaiteaz.

Xehetasunak : BLE – Ekaitz Mazusta – 0627133236

BIHARKO LURRAREN ELKARTEA

32 Rue de la Bidouze
64120 Saint Palais
Tél : 05 59 65 66 99
ble-arrapitz@wanadoo.fr
www.bio-aquitaine.com